

# ETORKIZUNeko ZTIM LANPOSTUAK:

Debagoieneko enpresen  
gaitasun eta prestakuntza  
beharren analisia.

2023ko urtarrila – ekaina



# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

## Zer aztertzen da?

Datozen 5 urtetarako Debagoieneko enpresetan beharko diren ZTIM (\*) lanpostuak eta langileen profilak, prestakuntza beharrak eta gaitasunak identifikatu eta aztertu dira.

(\*) ZTIM: Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika.


## Nork hartu du parte?

Debagoieneko  
**23 enpresak**

**5.000 lanpostu**  
guztien artean

**Teknologia-maila handi eta ertaineko enpresak** aukeratu dira.

## Enpresen ezaugarriak



- Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa.
- Produktu metalikoen fabrikazioa.
- Informatika, elektronika eta optika produktuen fabrikazioa.
- Material eta ekipu elektriko fabrikazioa.
- Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa.
- Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatoien fabrikazioa.
- Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa.

- 0-9 langile
- 10-50 langile
- 51-100 langile
- 101-150 langile
- 151-200 langile
- 201-249 langile
- 250+ langile

# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

# Emaitzak

# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

Hurrengo urteetan aurreikusten diren lanpostuetarako **KONPETENTZIA, EGINKIZUN** eta **PRESTAKUNTZA** garrantzitsuenak.

## Etorkizuneko lanpostu edo lanbideak kontratatzekeo premia

Sortuko diren lanpostu gehienak profil teknikoak edo industria arlokoak dira, eskualdeko enpresa tipologiarekin bat eginez.

### Gradu zein Lanbide Heziketa



Fabrikazio Mekanikoa

- Mekanika
- Mekanizatua
- Metrologia
- Galdaragintza



Elektrizitatea eta elektromekanika

- Elektronika
- Robotika eta Automatizazioa



Instalazio eta mantenimendua

- Mekatronika
- Muntaketa



Informatika


- Informatika
- Datu analisia
- Datuen zientzia



Ingenieritza

- Mekanika
- Elektronika
- Mekatronika
- Informatika
- Antolakuntza

### Kontratatzekeo profilek izan beharreko prestakuntza:






# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

## Konpetentzia Teknikoak

### Teknologia garrantzitsuenak

Eusko Jaurlaritzak 2030erako garatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean jasotzen diren oinarritzko teknologietatik, hauek dira eskualdeko enpresentzat esanguratsuenak:



## Ezagutza Teknikoak

Enpresek aipatu dituzten beste konpetentzia tekniko batzuk:

Mekanika, elektronika, mekatronika eta informatika arloetan ezagutza	<b>%60</b>
Ezagutza industrial espezifikoak: CAD/CAM, Planoen interpretazioa	<b>%22</b>
Informatika arloan ezagutzak: Programazioa, datuen analisiak, Hardware diseinua...	<b>%18</b>
Komertzialak, Salmenta teknikariak eta Zuzendariak	<b>%13</b>
Zerbitzu kudeatzaileak, Zerbitzu ingeniariak...	<b>%9</b>


# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

## Zeharkako Konpetentzia

### Zeharkako konpetentzia garrantzitsuenak

Pertsonak ezagutza teknikoak izateaz gain, zeharkako konpetentziak barneratuta izatea eskatzen dute enpresek. Hau da, konpetentzia tekniko zein zeharkakoak izatea. Eta identifikatu da, perfil edo lanpostu batzuetan zeharkako konpetentzia batzuk falta dituztela.



### Enpresei garrantzitsuak iruditzen zaizkien beste zeharkako konpetentzia batzuk:

Proaktibitatea, lanerako gogoia eta inplikazioa	<b>%50</b>
Talde lanean aritzeko gaitasuna	<b>%45</b>
Ikaskuntza gaitasuna	<b>%40</b>
Anbizioa	<b>%34</b>
Kreatibitatea	<b>%26</b>

# ZTIM profilaren eskasia



ZTIM profilen eskasia orokorrari, **profil hauetan dagoen emakume portzentaia baxua** gehitu behar zaio.

## Gazteak industriara erakartzeko gakoak

Oztopoen artean, perfil eskasiaren ostean, lanpostuak erakargarri egiteko zailtasunak dituztela adierazi du enpresen **%43** ak.



Talentu gaztearentzat nahikoa erakargarria den **balio-proposamena egituratzeko** ahalegina egin behar dute enpresek



Industriako lan motarekiko gazteek dauzkaten **estereotipo kaltegarriak desegin** behar dira.



**ZTIM** arloetan **bokazio profesionalak piztu** behar dira, maila baxuenetatik hasita eta aukera berdintasunean oinarrituta.




Enpresen arteko lehia handia dela eta, gazteak bertan **erretentzeko estrategiak pentsatu** beharra dute enpresek (*ordutegi/egutegi malgutasuna, telelana, etab*)



## Zeharkako gaitasunen garrantzia

Gaitasun teknikoez gain **motibazio, prestutasuna eta jarrera positiboarekin lotutako gaitasunek** ere garrantzi handia dute:



Aipatzen diren beste kompetentzia batzuk:



**Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko** gaitasuna hobetzen jarraitu beharra:



### Teknologian ezagutza-hutsuneak

Enpresen  
**%50ak**  
ez ditu Eusko  
Jaurlaritzak **2030**erako  
esanguratsuak izango  
diren oinarritzko  
hainbat teknologia  
ezagutzen.

Bailarako enpresen jarduera motagatik,  
etorkizuneko teknologiak izango diren asko  
ezezagunak dira momentuz beraiantzat.

### Gutxien ezagutzen diren teknologiak:




Sistema Ziberfisikoak



Teknologia Kuantikoak  
eta Neutronikoa



Potentzia elektronikoa



Nanoteknologia




Energia Biltegitratzea

### Ezjakintasunari irtenbidea emateko:

Enpresek etorkizun hurbilean  
beharko dituzten  
**profilak identifikatzeko  
mekanismoak** abiarazi behar  
dira, garrantzitsua baita  
etorkizuneko teknologiak  
ezagutzea, ondoren,  
**inplementatu edo ez  
erabakitzeko** ahalmena izateko.

Galdetegian parte hartu duten enpresek

# 2027 urterako aurreikusitako profilen beharra lanbide-kategoriaren arabera:



# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

# Ondorioak



# Etorkizuneko ZTIM lanpostuak

Debagoieneko enpresen gaitasun eta prestakuntza beharren analisia.

- **ZTIM profilaren eskasia**
  - Enpresen %78k adierazi dute arazoak dituztela behar dituzten profilak aurkitzeko, kontratazio berrien aurrean.
  - ZTIM profilen eskasia orokorrari, profil horietan dagoen emakume portzentaje baxua gehitu behar zaio.
- **Gazteen erakargarritasuna**
  - Enpresek ahaleginak egin behar dituzte talentu gazteenarentzat nahiko erakargarria den balio proposamena egituratzeko. Eskaintzen diren lanpostuak, estereotipoetan oinarrituta, zikinak eta ilunak direla, eta lan baldintza gogorak dituztela pentsatzen da, esaterako, ordutegiak edota higiene baldintzak.
  - Debagoieneko enpresek ere adierazi dute bigarren oztoporik handiena eskaintzen dituzten lanpostuen erakargarritasuna dela; %43ak
- **Zeharkako gaitasunen garrantzia**
  - Gaitasun teknikoez gain eta zeharkako gaitasunei dagokienez, motibazio, prestasun eta jarrera positiboarekin lotutako gaitasunak ere garrantzi handia dutela nabaria da.
  - Zentzu honetan, enpresek gehien baloratzen dituzten zeharkako gaitasunak ekimena, proaktibitatea, lanerako gogoia eta inplikazioa dira.
  - Konpetentzia teknikoak eta zeharkakoak osagarriak direla, eta bi konpetentzia motak dituzten profilak bilatzen dituztela enpresek.
- **Konpetentzia edo arlo teknikoen inguruko ezagupen baxua:**
  - Adierazgarria da enpresen erdiek ez dutela Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2021) 2030erako esanguratsuak izango diren aurreikusitako oinarritzko teknologia batzuen ezagutza nahikoa (sistema ziberfisiko, teknologia kuantikoak eta neutronika, Nanoteknologia eta Energia Biltegitratzea).

# Eskerrik asko!

